

## ALDEZ AURREKO BILERAREN PROZEDURAK

Irteera bakoitza egin baino lehen, bertako arduradunek **aldez aurreko bilera** egitea komeni da, gutxienez hurrengo alderdiak koordinatu eta errepasatzeko:

- Jarduerarekin lortu nahi diren helburuak.
- Parte-hartzaileen esperientzia eta maila teknikoa.
- Parte-hartzaileen edozein arazo mediko edo ezagutu beharreko informazio nabarmena.
- Jardueraren inguruko azken informazioak errepasatu: iragarpen meteorologikoa...
- Segurtasun-arauak..
- Bakoitzaren erantzunkizunak.
- Larrialdirik egotekotan jokaera protokoloak eta kontaktu-telefonoak.
- Ordezko plan posibleak.
- Ekipamendu osagarria aztertu eta banatu.